

## GIPUZKOAKO BAZKUNDEAK IDAZKARI NAGUSI PLAZARAKO DEIALDIA IREKI DU

---

Donostia - 2018ko uztailaren 24a

Gipuzkoako Bazkundeko Osoko Bilkurak Gipuzkoako Bazkundeko Idazkari Nagusi plazarako deialdia onartu du gaur, uztailak 24. Hautaketa prozesua lehiaketa publiko baten bitartez jarriko da martxan. Deialdiaren xehetasunak eta oinarriak [Gipuzkoako Bazkundearen webgunean](#) argitaratuko dira 2018ko **uztailaren 25etik aurrera**. Prozesua 2018ko abuztuaren 31eko 18.00 arte egongo da irekia, behin iragarkia argitaratu eta gero.

Idazkari Nagusi berri bat aukeratzeko erabakia Gipuzkoako Bazkondeak bizi duen berritze prozesuari lotuta dago eta erabakia Gipuzkoako Bazkundeko Batzorde Exekutiboak eta Osoko Bilkurako kideek aho batez berretsi dute. Berritze prozesu honen helburua Gipuzkoako Bazkondea sustatzea da.

### Eskertze

Gipuzkoako Bazkundeko Osoko Bilkurako kideek eta Batzorde Exekutiboak Endika Sánchez Aguirrek egindako lana goraiatu eta eskertu nahi izan dute. Azken 8 urte hauetan, Endika erakundaren buru izan den urte hauetan, Gipuzkoako Bazkondeak inoiz bizi izan duen krisi gogorrenari aurre egin behar izan diola gogora arazi dute eta egoera honen aurrean erakundea indarberrituta atera dela azpimarratu dute. Oraingo Gipuzkoako Bazkondea Endika Sánchez Aguirren ekarpenik gabe ez zela ulertuko ere nabarmendu nahi izan dute.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Irene Bengoetxea

[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)

943 000 310 / 688884347